

Funtsezko baliabideak

Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Badakigu gure enpresa aurrera eramateko baliadiabide asko behar ditugula.

- Lehenik eta behin, negozio martxan jartzeko baliabide fisikoak behar ditugu. Lokal on bat izatea eta haren kokapena ideala izatea oso garrantzitsua izango da gure enpresaren etorkizunerako. Sukalde on bat izatea, eta haren barruan gure janaria prestatzeko makina modernoak izatea. Baita ere, instalakuntza teknikoak izan behar ditugu; hau da, telefono sarea eta internet sarea. Horrela gure negozioa errazago handituko da. Aurrerago, garraiorako elementuak erosiko ditugu gure bezeroekiko harremana hobea izateko.
- Gure ideei guti hauek martxan jartzea oso zaila denez, oso beharrezkoa da oso antolamendu ona izatea. Horretarako, jende intelektualekin kontaktuan jarriko gara marketing talde bat sortzeko. Gainera, beste talde bat izango dugu egunero gure bezeroak zer nahi duten aztertzeko, eta horrela gure bezeroak pozago egongo dira, eta aldi berean gure bezeroen kantitatea handitu egingo da.
- Gure negozioa aurrera eramateko jende fisikoa behar dugu. Hasiera batean, enpresa honen sortzaileak egongo gara lanean. Baina gure enpresa handitzen doan heinean, langileak kontratatzen hasiko gara. Gure langileak ez dira konpetentziak beste langileak bezala izango. Hauek espezializatuak egon behar dira gure produktuak kalitate handikoak izateko eta oso jarrera ona izan behar dute gure bezeroak pozik egoteko eta gehiagotan bueltatzeko. Baita ere gure produktuak bezeroen etxeetara iristeko banatzaileak behar ditugu, eta horretarako, motorra gidatzen duten pertsonak behar ditugu.
- Badakigu enpresa hau aurrera eramatea ez dela merkea izango. Horregatik, hasteko mailegu bat eskatuko diogu banku bati, eta negozioarekin izango ditugun etekin guztiekin, maileguari aurre egiteko gai izango gara.